

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

LURRALDE OREKAREN SAILA

426/2021 Foru Agindua, azaroaren 15ekoa, baimentzen duena Ignacio Zabalza Zugastiren behin-behineko izendapena Gasteizko Udaleko diruzain lanposturako

Gasteizko Udalak zerbitzu honi jakinarazi dionez, aurtengo azaroaren 21ean erretiratuko da egun diruzaintzako lanpostua aldi baterako betetzen duena.

Hortaz, Udalak ALHAOn (121 zk., 2021eko urriaren 22koa) iragarki bat argitaratu zuen, estatuturako gaikuntza duen toki administrazioko edozein funtzionariook lanpostu horretan jarduteko eskaera egin ahal zezan mota horretako funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren 48. artikuluan eta hurrengoetan jasotzen den edozein hornitze eratan. Baina, eskaerak egiteko epea igaro ondoren, udalak ez zuen eskaerarik jaso, Gasteizko Udalaren Giza Baliabideen Zuzendaritzak jakinarazi duenez.

Hori dela eta, proposatu du Ignacio Zabalza Zugasti udal horretako A1 taldeko karrerako funtzionarioari behin behineko izendapena egitea, lanpostua arauz bete arte. Udalak bere eskaeran jakinarazi duenez, hark onartu egin du lanpostu horretan jardutea.

Bat etorritz estatu osorako gaikuntza duten toki administrazioko funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren 52. artikuluan xedatutakoarekin.

Kontuan hartu da Toki Administrazioaren Arrazionalizazio eta Iraunkortasunaren abenduaren 27ko 27/2013 Legeak 25. artikuluan xedatutakoa. Lege horrek Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea aldatu zuen, 92.bis artikulua berria sartuz, non zehazten baita toki korporazioetan behin-behineko langileak izendatzeko aginpidetza eremua.

128/2018 Errege Dekretu horren hirugarren xedapen gehigarrian arautua betez, eta Arabako Foru Aldundiaren Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren 52/1992 Foru Arauaren 40. artikuluan jasotzen diren eskudantzien ondorioz, eta nire eskumenekoak diren ahalak baliatuz,

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Ignacio Zabalza Zugastiren behin-behineko izendapena egitea, Gasteizko Udaleko diruzain lanpostuari dagozkion eginkizunak betetzeko.

Bigarrena. Izendapen horrek eragina izango du 2021eko azaroaren 21etik lanpostua behin betiko bete arte, hargatik eragotzi gabe lehenago edozein unetan izendapena ezeztatzea Gasteizko Udalak hala eskatuta, edo lanpostutik kendu behar izatea horretarako legezko kausaren bat tarteko.

Hirugarrena. Foru agindu hau jakinaraztea Gasteizko Udalarari eta Eusko Jaurlaritzako Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritzari, eta agintzea foru agindu hau ALHAOn argitaratzeko.

Laugarrena. Jakinarazten den foru agindu hau behin betikoa da administrazio bidean, eta haren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkez daiteke zuzenean Gasteizko administrazioarekiko auzietarako epaitegietan, bi hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik aurrera. Hori guztia, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 123. eta 124. artikuluetan eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa

arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeak 46. artikuluan xedatutakoaren arabera. Edonola ere, lehenago aukerako erreklamazioa jar daiteke.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko azaroaren 15a

Lurralde Orekaren Saileko foru diputatua
IRMA BASTERRA UGARRIZA

Lurralde Orekaren zuzendaria
JESÚS MARÍA GUINEA DÍAZ DE OTALORA